

In Memoriam: Joxemartin Apalategi

Goizik bildu zen antropologiaren esparrura Joxemartin Apalategi, auzokide ez ezik, maisu zuen Joxemiel Barandiaren arrimura. Ataungo San Gregorio utzita, Parisen burutu zuen nagusiki formakuntza akademikoa 68ko maiatzaren ondorengo garai nahasi eta interesgarrietan, gerora Euskal Herriko mundu akademikoan murgildu diren hainbat lagunen antzera. Paris VIII unibertsitatean Soziologia ikasketak lehenik, ondotik Ecole des Hautes Études en Sciences Socialesen osatu zituenak. Ez ziren nolana hiko garaiak. Frankismo ondoreneko Euskal Herrian, unibertsitate pribatu eta konfesionalak besterik ez zeuden orduan. Goi mailako formakuntzan janztea ez zen nahikoa haatik. Jakintza gizarte-raztearen beharraz jakitun izan da Joxemartin eta hala erakusten du Eusko Ikaskuntzan berean hartutako ardurak: Gipuzkoako Lehendakariorde izan zen 1991-93 artean, eta nola, ez antropologia-etnografia saileko kide. Antropologia-etnografia sailaren ezaugarri diren bilera ibiltarrietan, Euskal Herriko txoko eta inguruak ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen duten lan bileratara Joxemartin kamera eta bereziki kaiera eskuan agertzen.



Datu-biltzaile amorratua izan da Joxemartin. Garai bateko etnografoen modura, landa-laneko ohiko tresna den koadernotxo ibiltzen zuen beti esku-ara. Bertan jasotzen zituen intereseko zitzaizkion xehetasunak. Bere ikasle izandakoek ederki asko gogoratuko dutenez, zehatza zen, puntiloso, langintza horretan. Xehetasunik ñimiñoenari erreparatzen zion, izan bilera bateko partaideen kokapena mahaiaren bueltan, zein bere ikerketa lanetarako baliagarri zitzaizkion bestelako datuak bilduz. Etnografiaren ikuspegia, baina, egungo antropologia korranteetara jarria zuen: errito eta gertakizun esanguratsuak albo batera utzita, egunerokotasunaren ikerlari izan zen. Hala erakusten digu 1984ean Julio Caro Barojaren zuzendaritzapean aurkeztu zuen Ataungo kontu zahar eta ahozkototasunaren inguruko doktorego tesiak. Euskaraz idatziriko lehenengotariko tesia izan zen hura.

Barandiaranek hasitako bidetik ekin zuen, etnografo klasikoan lan metodoak etnografia modernoarekin uztartuz. Honela, Barandiaranek berak diseinatutako eta Etniker taldeek bultzatutako Euskal Herriko Atlas Etnografikoan parte hartu zuen, elikadurari buruzko galdeketak burutuz, baina baita 1970. hamarkadan gizarte antropologian lan-molde berritzaile ziren ahozko historia eta bizitza-historiak euskararen mundura ekarriaz. Hain zuzen ere ikerketa eta euskara uztartu beharra izan da bere lanaren ardatz nagusietakoa. Hala gogorarazten zuen behin eta berriro Eusko Ikaskuntzako saileko dinamikan hitza hartzen zuenero, hura zuen lehentasun eta premiazko gaia. Informatzaileen hizkuntza ez ezik, euskarak hizkuntza akademikoa behar zuela izan argi zuen Joxemartinek. Hala, 1980. hamarkadan Antropologiaren euskal bilduma sortu zuen, Joxemiel Barandiaranen omenez, euskaraz idatziriko ikerlanak bilduz, bereak zein besterenak, tartean orduan aski gutxi lantzen zen hiri-antropologiari buruz Bilbori buruz egin zuen lana. Ikerketa berritzaileetan parte hartu zuen ere, hala nola, Teresa del Valleren zuzendaritzapean burututako *Mujer vasca imagen y realidad* talde proiektuan.

Gizarte antropologiak unibertsitatean leku izatearen garrantziaz jakitun zen Joxemartin. 1981ean sortu berria zen EHUko Filosofiako fakultatean irakasle hasiberri zela, Teresa del Vallerekin batera antropologiak ikasketa planetan toki izan zezan lan handia egin zuten. Harrez gero, Donostiako Campusean antropologia lizentziaturan irakasle izan da, kasik azken une arte. Ez adiorik, Joxemartin.

Aitzpea Leizaola
EHUn antropología irakaslea
Antropologia-Etnografía saileko kidea